

# UrbanHero auzolandegi artistikoaren ezusteko emaitza

Boluntarioen egonaldia amaitu den arren, DSS2016ren baitako proiektu honetan eraikitakoak bizirik dirautela diote horren arduradunek

**EL DIARIO VASCO** |  
@diariovasco

12 agosto 2016  
18:02

Iragan asteburuaz geroztik, hainbat tokitatik etorritako boluntariok hartu dute parte DSS2016aren baitako UrbanHero auzolandegi artistikoan. Haurrak, mugikortasun urriko pertsonak eta emakumeak izan dira protagonista, hiru kolektibo horiek izan baitira haututako ardatzak. Ardatz hirukoitz horren inguruan diseinatutako esku-hartzeek, denek lanean eman dute astea bukatu eta gero, ezusteko emaitza izan dute. Hain zuzen ere, DSS2016k ohar baten bidez zabaldu duenez, emaitzak iraupen laburrekoak izango zirela uste bazuten ere proiektuak aurrera egin duen heinean indarra hartzen joan da ondarearen garrantzial. Hartara, «eragina izan duen auzoetan proiektuari jarraikortasuna ematen saiatzen ari dira».

Haurrei dagokienez, Haurbanistak proiektuan lanean diharduen Maushaus kolektiboak haurren neurrira egokitutako eskuhartzea gidatu du. Koldo Telleria arkitektoak, gizarteak mugikortasun urriko pertsonak kontuan har ditzan lortzeko ekintza gidatu du. Btoy, Andrea Michelsson, artista katalanak emakumeentzako hiri libreagoa josten lagundu du.

«Izan ere, UrbanHero boluntarioen kemen, indar, gogo eta ilusioarekin hazi den berdintasun erronka izan baita. Auzolandegia izanik proiektuaren arduradunek argi zeukaten lantaldeak aberastuko zituela eskuhartzeak. Horrela bada, abuztuko lehenengo astean, Donostiaratu bezain agudo, elkarbizitza hasi zuten boluntarioen ekarpenei esker aurrera egin du UrbanHerok. Partaideek entsalada koloretsua osatu dute: jatorri anitzetako pertsonak izan dira, adin, genero eta gorputz gaitasun ezberdinekin», diote antolatzaileek.

Hori ikusita, «proiektuaren arduradunek ulertu dute, hasiera eta amaiera zehatza izan beharrean, UrbanHeri fisikoa ez den planoan ere hazteko gaitasuna duen proiektua dela». Ez dela, alegia, astebetean iraungi den ekimena.

## Hiri pausalekua

Hiri pausalekua izan daiteke esandakoaren adibide bat. Koldo Telleria, hiri pausalekuan lan egin duen arduradunaren hitzetan «prozesuaren emaitza fisikoa argazkietan geratuko da, baina emaitza aberasgarriena, zalantzarik gabe, humanoa da. Ikasketa prozesu itzela izan da, eta hori bihotzean, barru-barruan eta betirako geratuko zaigun zerbait da. Goraipatzekoak dira lantaldeak praktikan jarri duen elkarzaintza eta denontzako hobea izango den hiri bat eraikitzeke indar handia».

Erronkari aurre egin dion talde boluntarioa hiru arkitektok, arkitekto tekniko batek, gizarte laguntzaile batek, etxeko andre batek, artista batek, %100 ezintasun fisikotik gertu dauden bi pertsonak eta %60 ezintasun fisikoa duen informatikari batek osatu dute.

Hiri pausalekua abuztuaren 28a arte egongo da Egia kalean. Tarte horretan, hiri pausalekuak bilera bat hartuko du astero. Berezibiko garrantzia izan du eskuhartzearen inguruan jaio den erantzuna, izan ere, Elkartu, Gipuzkoako gutxitasun fisikoa duten pertsonen federazioak, Egia Bizirik auzo elkarteak eta Eskola Bidea elkarteak zein elkarlanean Egia auzoko irisgarritasuna aztertzea adostu baitute. Horrela auzoak alor horretan dituen beharren inguruan hausnartzeko aukera izango dute baita irisgarritasuna bermatzeko lan egiteko. Era berean, Ekartu eta Hirikilabsek indarra bateratu dute eta lantalde berri bat sortu dute. Lantaldearen eginkizuna jarri eta kendu daitezken aldapa edo koxken diseinatzea izango da. Gaur, estreinako bilera egiteaz gain, egia auzoko hainbat denda eta tabernak horrela eskatuta, dagoeneko egindak dauden aldapa edo koxkak banatu dituzte.



Ekimenean parte hartu duen taldeetako bat.

## Haur museoa eta graffitiak

Haurren neurria eraikitako espazioa da Haur museoa. Alde batetik, euren neurri fisikoetara moldatutakoa da, eta bestetik, euren sormen beharrei erantzungo dien espazioa sortu dute boluntarioek. Eskuhartzearen estreinako printza Maushausek margotu zuen aurten burututako Haurbanistak proiektuaren edizioari esker jaso zituzten 1000 haur baino gehiagoren iritzi eta lanek gidatuta.

Haur museoan hurrek euren sormena askatasunez eta euren neurria egokituta bizitzeko aukera izango dute. Museoak lau espazio ezberdin ditu eta bakoitza gai bat jorrazteko eraikia da. Horrela bada, espazioak dira: ametsak, natura, adierazpena eta sormena. Lau espazioak hutsik daude haurren irudimenak bete ditzate.

Bertaratu nahi duen orok irailaren 9a bitartean edukiko du aukera. Amarako Mentxu Gal plazan kokatuta dagoen Haur Museoa zabalik izango da astelehen, asteazken eta ostiraletan 17:30etatik, 19:30etara (abuztuaren 15ean izan ezik). Horrez gain, Haur museoa prest dago beste edozein kokaleku hartzeko, horregatik, interesa eduki dezakeen elkarte, erakunde edota hezkuntza zentro orok eraikina eska dezake.

Hormekin dialektika piztu dute emakumeak ardatz dituen ekintzako arduradunek. Donostiako hiru auzotako hormetan emakume adoretsuen aurpegiak marraztu eta margotu dituzte: Zentroan, Egian eta Grosen. Horietan emakume ezagun eta ez ezagunen erretratuak topatuko dituzte hiriko biztanteak; guztiek dute berdintasun bat, alegia, kemena. Erretratuekin batera emakumeek kale askatasuna aldarrikatzeko hitzak lotu dituzte. Osagai guzti horiei esker ekintzen inguruan indar askatzailea jaiotzea lortu dute bolondresak. Abendua bitartean bilatu ahalko dituzue, ea denak topatzen dituzuen!